

**Euskararen kale erabileraren V. neurketaren emaitzez
Ipar Euskal Herrian**

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Euskararen kale erabileraren V. neurketaren emaitzez Ipar Euskal Herrian. Bat Soziolinguistika aldizkaria, 2007, pp.109-116. <artxibo-00195423>

HAL Id: artxibo-00195423

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00195423>

Submitted on 10 Dec 2007

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN V. NEURKETAREN EMAITZEZ IPAR EUSKAL HERRIAN

Jean-Baptiste *Battistu* Coyos

IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea,
UMR 5478 (CNRS) - Baiona

Helbide elektronikoa : jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

Laugarren aldikoz, Soziolinguistika Klusterrari esker, Ipar Euskal Herriko kaleetan euskararen erabilerari buruzko neurketa bat badugu, herrialde horrentzat lau urtean behinko neurketa hori 1993an hasi zelarik. Azken datuak 2006ko urrian bilduak izan dira. Datu horiek zinez baliagarri eta beharrezkoak dira jakinez egiazko ahozko erabilerari buruzkoak bakarrak direla, Euskal Herri osoa kontuan hartzen dutenak. Emaitzak behaketa zuzenaren bidez bilduak dira eta ez, beraz, aitorturiko erantzuni esker moldatua den ohizko inkesta soziolinguistiko baten bidez, ustezko gaitasuna edo erabilera bilduz. Hortan da segur lan horren berezitasun handiena. Egiazko erabilera, hizkuntzaren erabileraren alor txiki bat gutxienez neurtua da.

Aldiz, kontuan hartua den hiztuna neurtutako udalerrian bizi den edo beste nonbaitik etortzen den jakitea ez da posible. Duda horrek emaitzen balioa murrizten du pixka bat. Posibilitate hori gogoan begiratzeko da emaitzak irakurtzen ditugunean. Hari berean, behaketa egiten duenak hiztunaren adina ez daki zein den, estimatzen baizik ez du.

NEURKETAREN BALDINTZEZ IPAR EUSKAL HERRIAN

Kale erabileraren neurketaren metodologiak eredu berri bat hartu du 2006an eta neurketaren baldintzak aldatu dira Ipar Euskal Herriko ere. Ikus horri buruz Kike Amonarriz eta Lionel Jolyren artikulua (*Bat* 62, 2006). Irizpideetan, besteak beste, 1993., 1997. eta 2001. urteko datuak edukiak izan dira; aurtengoekin konparazioa egiteko datu koherenteak begiratu dira herriak aukeratuz, horiek gutiago baitziren. Halere, jasotako elkarrizketen kopurua asko handitu da datuen fidagarritasuna hobetzeko asmoz, eta beraz 2006ean neurtu diren udalerrietan ibilbide gehiago egin dute behaketak egin dituztenek (Amonarriz, Joly: 143).

Ipar Euskal Herriko kasuan ere, 2006an neurtutako herrien lagina murriztua bada, aukeratutako herriak aurreko hiru laginetan ziren. 1000 biztanletik gorako 11 herri kontuan hartuak gelditzen dira, jakinez 38 zirelarik 2001ean, erran nahi baita 1.000 biztanletik gorako udalerrri guztiak. Horiek dira 2006ean neurtutako udalerrriak : Atharratze, Baiona, Donapaleu, Donibane Garazi, Hazparne, Hendaia, Kanbo, Maule, Miarritze eta Ziburu (7 Lapurdin, 2 Nafarroa Beherean, 2 Zuberoan)¹. Atharratze, 1000 biztanletik beherakoa izanik ere, aukeratu izan da, Zuberoan Maule bakarria izanzen zelarik.

Haurren presentziaren eta sexuaren arabeko datuak ez ditugu Ipar Euskal Herriko, Hegoaldeko hiriburuentzat emanak baizik ez dira : Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz. Behatu diren hiztun taldeen ezaugarriak ez ditugu aztertuko, adin bereko edo ezberdinetako taldeen arabeko datuak ez baitugu ere. Azkenean, euskararen ezagutzaren arabeko zonalde linguistikoetako sailkatutako emaitzak Hego Euskal Herriarentzat baizik ez dira (ezagutzaren sailkatzea : % 0-25, % 25-50, % 50-75, % 75-100). Beraz, aztertzen dugun herrialdearentzat datu orokorrak, adin taldekakoak, udalerrietako biztanle kopuruaren arabekoak eta bakarrizketakoak dira hemen baliatuko ditugunak.

¹ 2001eko neurketan, 31 ziren Lapurdin, 4 Nafarroa Beherean eta 3 Zuberoan.

DATU OROKORRAK

1. taula Euskararen erabilera Ipar Euskal Herrian

Neurketa	Euskararen erabilera
1993	% 6,5
1997	% 6,3
2001	% 5,8
2006	% 4,6

Datu orokor horiek diren bezala onartuz, kale erabilera Ipar Euskal Herrian etengabe behera jaisten dela erran dezakegu, hamahiru urteren buruan bi puntu galduz (% 1,9), % 6,5tik % 4,6ra jaitsiz. Lau neurketetan beherakada bat badugu. Eta beherakadaren erritmoari so egiten badiogu, bizkortzen ari dela ohartzen gara. Alderantziz, Euskal Herri osoan kale erabileraren bilakaera positiboa da, 2006ean % 14,2ra helduz, datuen arabera 1989az geroztik hiru puntu baino gehiago irabaziz (% 3,4), neurketa bakoitzean gora eginez.

Ditugun datuak Ipar Euskal Herri osorako emanak dira, eta beraz euskaldun kopuruaren araberrako lurraldekako konparaketa baten egitea ezinezkoa da, gaitasun-maila edo euskalduntasuna kontuan hartuz. Barnekaldean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan erran nahi baita, 1000 biztanletik beherako herriak era orokorrean euskaldungoak direla pentsa dezakegu (ik. *Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001*). Kontuan hartuak balira erabileraren ehunekoa gorago litzateke, baina, dakigun bezala, Idauzeko edo Ibarlako plazan adibidez egun osoan nehor ez entzunez ere egon ginateke. Eta beraz biztanle gutxierekiko herri horiek aztertuak ez dira, kalean jendearen hizkuntza erabileraren jasotzea ezinezkoa baita. Baina herrixka horiek Iparraldeko biztanleriaren zati txiki bat ordezkatzan dute eta beraz erabileraren ehunekoa ez litzateke hainbeste aldatuko.

DATUAK ADIN TALDEKA

2. taula Euskararen erabilera adin taldeka Ipar Euskal Herrian

Neurketa	Orotara	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1993	% 6,5	% 5,1	% 3,2	% 6,2	% 11,3
1997	% 6,3	% 5,1	% 3,2	% 6,0	% 10,5
2001	% 5,8	% 5,2	% 2,7	% 5,4	% 8,9
2006	% 4,6	% 4,8	% 3,6	% 4,0	% 7,6

2.1. Haurrak

2001eko neurketaren haurrei buruzko emaitzei so eginez, Ipar Euskal Herrian haur taldea izan ezik erabileraren beherakadak adin talde guztiak ukitzen zituela erran nuen (*Bat* 43, 2002 : 130). Eta emaitza hori esplikatzeke hedatzen den euskararen irakaskuntzaren lehen ekarpena litzatekeela aurreratu nuen. Lau urte beranduago, neurketa berri bat kontuan hartuz, haur taldearen erabileraren beherakada bat berriz hasten dela ohartzen da, beherakada txiki izanik ere eta holako ehunekoa hain adierazgarri ez bada ere. Orotara, hamahiru urteko garai bat neurtuz, haur taldearen kale erabilera ez dela aldatzen erran genezake, % 0,3 galduz.

2.2 Gazteak

Alderantziz, zenbaki gordinak diren bezala hartzen baldin baditugu, gazte taldearen kale erabileraren ehunekoa igo dela iduri luke. Nola esplikatatu haurren taldearen erabileraren

beherakada txikia eta , aldi berean, gazteen taldearenaren gorakada hori ? Euskararen irakaskuntza bereziki lehen hezkuntzan garatzen dela Ipar Euskal Herrian eta gutxi bigarrenean jakin behar da. Beraz, bi talde horien arteko desberdintasunaren argitasuna denbora behar dela irakaskuntzak bere emaitzak eman ditzan litzateke ? Dena den gazte taldearen zenbakiak erabileraren gorakada bat erakusten dute, adin talde horretan beherakada zelarik ordu arte.

Laburbilduz, haurren taldearekin bezala, hamahiru urteren buruan gazteen taldearen kale erabilera aldatzen ez dela edo gutxi bederen erran dezakegu, % 0,4 irabaziz baina, halere, lau adin taldetarik ahulena egonez. Lehen begiradan hizkuntzaren eskola-irakaskuntzaren eragina kale erabileraren beherakadaren oztopatzea litzateke eta ez erabileraren emendatzea, jakinez familiaren bidezko euskararen transmisioa oso ahula dela aztertzen dugun eremuan. Artikulu honen bukaeran irakaskuntzari lotua den beste balizko argitasun emanen dut datu horiek esplikatzeko.

2.3. Helduak

Helduekin datuak txarragoak dira, 1993ko % 6,2tik 2006ko % 4,0ra jaitsiz. Beraz, epe horretan 2 puntu baino gehiago galdu dira eta beherakada handiago da 2001etik 2006ra, % 1,4. Adin talde honekin izan daitekeen gauzeen aldatzeko eragile nagusia helduen euskalduntzea litzateke. Baina irakaskuntza honek 1000 bat ikasle hunkitzen du Ipar Euskal Herrian eta dakigun bezala hiztun osoak eskuratzeko epea luzea da. Ikasle askok ikaskuntza bidean uzten dute.

2.4. Adinekoak

Bukatzeko, adin talde euskaldunena (*Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001*) eta, bai ere, aztertzen dugun neurketaren arabera kale erabilera gorena duena har dezagun, adinekoena. Hoierekin kale erabilera-tasa % 7,6z da. Bertan, agertzen den bigarren emaitza da adin talde horrek % 3,7 galdu dituela, gehiago galdu duen adin taldea da beraz. Datu hori ulertzen da belaunaldi horrek euskara eskolatik kanpo ikasi zuela kontuan hartzen badugu, familian eta auzoko eremuan beraz, orduan euskararen irakaskuntzarik ez baitzen. Euskaldun belaunaldi hori nahitaez txikitzen da eta gero eta gehiago ez euskalduna bilakatzen. Kasu honetan ere, euskararen ezagutzak eta kale erabilerak norabide paralelo bat jarraitzen dutela ikusten dugu. Ohar hori ez da hain harrigarria.

DATUAK UDALERRIETAKO BIZTANLE KOPURUEN ARABERA

Neurketaren emaitzak sailkatzeko erabilia den bigarren irizpidea biztanle kopurua da eta, Ipar Euskal Herriko kasuan, udalerriak lau taldetan banatu dira : 5.000 biztanletik beherakoak, 5.000-10.000 biztanlekikoak, 10.000-25.000 biztanlekikoak eta 25.000-50.000 biztanlekikoak. Datuak 1997z geroztik baditugu, beraz azken hiru neurketenak. Horiek dira emaitzen taulak (3., 4., 5., 6. taulak):

3. taula Euskararen erabilera 5.000 biztanletik beherako udalerrietan

Neurketa	Orotara	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1997	% 15,7	% 8,9	% 8,4	% 14,4	% 33,2
2001	% 11,9	% 11,1	% 5,1	% 8,6	% 24,2
2006	% 11,0	% 13,4	% 2,1	% 11,9	% 15,1

4. taula Euskararen erabilera 5.000-10.000 biztanlekiko udalerrietan

Neurketa	Orotara	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1997	% 6,2	% 4,8	% 2,3	% 6,3	% 9,9
2001	% 7,0	% 4,4	% 3,0	% 6,4	% 14,6
2006	% 3,7	% 5,6	% 3,6	% 3,3	% 4,4

5. taula Euskararen erabilera 10.000-25.000 biztanlekiko udalerrietan

Neurketa	Orotara	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1997	% 4,2	% 7,4	% 1,6	% 3,3	% 3,9
2001	% 3,6	% 3,4	% 5,1	% 4,5	% 0,0 ²
2006	% 5,1	% 7,2	% 5,2	% 4,0	% 6,0

6. taula Euskararen erabilera 25.000-50.000 biztanlekiko udalerrietan

Neurketa	Orotara	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1997	% 1,5	% 1,7	% 0,8	% 1,6	% 1,7
2001	% 2,2	% 1,7	% 0,5	% 3,3	% 1,9
2006	% 3,4	% 2,5	% 3,1	% 2,8	% 7,0

Euskararen kale erabilera gorena 5.000 biztanletik beherako udalerrietan aurkitzen da (% 11,0), hiri handietan, 25.000-50.000 biztanlekiko udalerrietan, apalena delarik (% 3,4). Datu hori gorago erran dugunarekin argi daiteke : udalerrri txikiak gutxi gorabehera euskaldunenak dira Ipar Euskal Herrian, barnekaldekoak bederen. Halere, 5.000-10.000 biztanlekiko udalerrietan erabilera behera da (% 3,7) eta jaisten ari da 2001eko neurketaren tasari konparatuz. Baina hori ez litzateke aurkako adibidea, jakinez tokiko administrazio hiri merkatagune txiki horiek baserria baino frantsesdunagoak direla.

Udalerrri handienekiko bi mulzoetan kale erabilera jaisten ez dela da bigarren ohar orokorra. Udalerrri txikiakiko bi mulzoetan aldiz bai jaisten da. Beherakada ez da orokorra beraz : udalerrri handienetan, 10.000-25.000 biztanlekiko udalerrietan eta 25.000-50.000 biztanlekiko udalerrietan erabilera igotzen da, alde batetik % 4,2tik % 5,1era eta bestetik % 1,5etik 3,4ra helduz. Fenomeno horren adierazpenak hiri handietara biztanle euskaldun batzuen migrazioa eta bai ere euskararen irakaskuntzaren eragina daitezke³. Neurketaren egunena udalerrri txikiagoetatik etortzen diren euskaldunak kontuan hartzeko lirateke ere. Baina horrek 5.000-10.000 biztanlekiko udalerrientzat ere balioko luke...

Adin taldeen araberrako emaitzak ez ditugu aztertuko, erregularrak ez baitira. Halere, 10.000-25.000 biztanlekiko udalerrietan aparte beste hiru udalerrri multzoetan haurren taldearen erabilera goratzen dela azpimarra dezagun. Halere, 2. taulan, era orokorragoan, haurren euskararen kale erabilera ez dela igotzen ikusi dugu.

DATUAK BAKARRIZKETETAN

7. taula Euskararen erabilera bakarrizketetan Ipar Euskal Herrian

Urtea	Kopurua	Euskararen erabilera	Erdararen erabilera
-------	---------	----------------------	---------------------

² Ohar txiki bat : 2001eko neurketan 10.000-25.000 biztanlekiko udalerrietan ez da adineko hiztunik behatu (5. taula). Honek, noski, ez du erran nahi adineko hiztunek ez dutela euskara erabilten udalerrri horietan. Halere, emaitzen balioa erlatibizatzen du.

³ Neurketaren egunean, kanpotik etorri diren erosleen edo administrazioarekiko afera batentzat heldu diren eragina daitezke ere, baina hori dudagarriagoa litzateke.

2001	95	% 8,42	% 91,58
2006	210	% 9,52	% 90,48

Bakarrizketentzat hartuak dira solaskiderik gabeko kasu guziak, beraz hiztuna bakarra litzatekeenean behaketa egiten duenaren ustez.

Bakarrizketak bigarren aldikoz aztertuak direla ohart dezagun. Kontuan hartua den multzoa zinez handiagoa da 2006an 210 bakarrizketarekin, eta euskararen erabileraren ehunekoa % 1,1ez goratu da. Euskara elkarrizketetan baino gehiago erabilia dela azpimarra dezagun, % 9,52 alde batetik eta % 4,6 bestetik. Zein ondorio atera datu horretarik ? Euskaldunak bakarrak direnean euskara gehiago erabilten dutela beren solaskideekin baino eta euskara bakartasunaren hizkuntza bilakatzen dela ? Ez naiz bide horretan ausartuko.

Halere, Euskal Herriko tasa-erabilera beherarekiko herrialdeei so egiten badiegu, Araba eta Nafarroa garaia erran nahi baita, fenomeno beraz ohartzen gara. Horren eragilea solaskide euskalduna ez eskuratzea izan daiteke, edo kalean bakarra izanez euskara ikurtzat erabiltea. Hipotesi hori argitzeko beste hizkuntza gutxitu batzuen kale bakarrizketen baldintzen azterzea litzateke iker-norabidea.

ONDORIOAK

Egindako neurketen arabera, kale erabilera etengabe behera jaisten da Ipar Euskal Herrian. 1993ko % 6,5tik 2006ko % 4,6ra jaitsiz, bi puntu galdu ditu : % 1,9 (1. taula). Euskal Herriko herrialdeetatik tasa ahulena du. 1993an Nafarroa garaiak eta Arabak tasa ahulago bazuten.

Erabileraren etengabeko jaitsiera hori helduen eta adinekoen taldeetan agertzen da. Alderantziz, haurren eta gazteen taldeetan beherakada gutxi gorabehera gelditua da orain, nahiz eta azken neurketaren arabera haurren taldean erabilera berriz jaisten den (2. taula).

Oroitaraz dezagun neurtua dena euskararen erabilera ez dela, baina bai udalerrri batzuetako kaleetan erabiliak diren hizkuntzena, euskararena barne. Halere, hari berean, Euskal Herriko soziolinguistikako inkesten aitorturiko datuen arabera (*Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001*), elebidunak 2001ean 55.000 ziren Ipar Euskal Herrian (% 24,7), 1991ean aldiz 69.000 zirelarik (% 33,1). Beraz, *mutatis mutandis*, herrialde horretan euskararen kale erabileraren ehunekoak eta elebidunen ehunekoak bide paralelo bati jarraitzen zaiotela erran dezakegu, jaisten den bide bat. Hari berean, « eraginkortasun indizea »-ren kalkulatzeko baliagarri litzateke, indize hori « behatutako erabileraren eta neurtutako ezagutzaren ratioa » delarik (ikus Altuna, Iurrebaso : 127)⁴.

Laburbilduz eta ondorioz, abian den euskararen aldeko hizkuntza politikak, duela guti abiatuak egia erran, fruituak oraino ematen ez dituela litzateke lehen gogoeta, hizkuntzaren erabilera alor honetan bederen⁵. Garatzen den euskararen irakaskuntzak kale erabileraren beherakada ez du osoki oztopatzen haurren taldean, nahiz azken neurketa horren arabera gazteen taldean erabilera goratzen den ere. Bi talde horien arteko norabide desberdinak nola esplikatuko ez dakit. Belaunaldi horren zati bat ausartago litzateke eta eskolan ikasi duen euskara eskolatik kanpo erabili lukeela, euskara nortasun eta ezberdintasun ikurtzat hartuz, gazteagoek nahikari hori ez luketelarik oraino ? Haurren eta gazteen kale erabilerak ber norabidea hartuko balu, heldu eta adineko taldeen erabileraren etengabeko jaitsiera ohartuz, irakaskuntzaren eragin zuzena litzaketeela erratea errazago litzateke. Baina ez da argiki kasua.

Gorakadaren edo beherakadaren ehunekoak txikiak direla azpimarratu behar da ere. Eta beraz, egia errateko, holako baldintzetan kontuan hartzeko diren ez dakigu.

⁴ Indize horren formalazioa hau da : $Eraginkortasun\ Indizea = 100 * Erabilera (\%) / Ezagutza (\%)$ (Altuna, Iurrebaso : 127).

⁵ Ipar Euskal Herriko hizkuntza politika publikoaren azken dokumentua 2006ko abenduaren *Hizkuntza politika proiektua* da .

Hastapenean erran bezala, mugatua izanik ere, Soziolinguistika Klusterrak kudeatzen duen kale neurketa hori biziki baliagarria da, eta proiektu horren aurrekontua murriztu ez balitz euskararen erabileraren neurketak beste alor batzutan hedatzeko lirite : zerbitzu publikoetan, bankuetan, saltegiatan, kirol zelaietan, etab. Egiatzko erabilera zein den jakiteko edo, bederen, ebaluatzeko ez da beste biderik, oraiko inkesta soziolinguistikoek eta neurketek itxura orokorra ematen badute ere.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ALTUNA, Olatz eta IURREBASO, Iñaki (2004). Euskararen Datu-Basea –EDB 1.0–, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 51. Andoain, Euskal Soziolinguistika Institutua: 125-135.
- AMONARRIZ, Kike eta JOLY, Lionel (2007). Hizkuntzen kale erabileraren neurketa 2006, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 62. Andoain, Soziolinguistika Klusterra: 141-146.
- BAXOK, Erramun... [et al.] (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA KULTURA SAILA (2003). *Euskararen Jarraipena III Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001. Iparraldea*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 22-34.
- EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA INSTITUTA (2002). *Kale erabileraren IV. neurketa 2001. Emaitzak, Azterketak, Gogoetak*. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 43. Andoain, Euskal Soziolinguistika Institutua.
- EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (2006, abendua). *Hizkuntza politika proiektua « Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun »*, polikopi.